

MUTUAK

OSASUNAREN
NEGOZIOA



MUTUAK, OSASUNA NEGOZIO BIHURTUTA

Haserretu al zara inoiz mutuek eman dizuten tratu eskasagatik? Hementxe azalduko dizugu zergatik ez duten sekula zure osasuna zainduko.

Mutuak ugazaben elkarte pribatuak dira, diru publikoz finantzatzen direnak. Beren finantzabideen %90 elkartutako enpresetako langileen gizarte-kotizazioetatik dator. Mutuek lan-istripuengatik kotizazio guztiak jasotzen dituzte, eta kontingentzia arruntengatik kotizazioen zati bat. Gainera, Osasun Sistema Publikotik diru gehigarria jaso dezakete, zerga orokorretatik, sistema hau zuzentzen duten politikariek konpetentzia gehiago esleitzen badizkiete, nahiz eta mutuek, era berean, klinika pribatuei esleitu zeregin berri horiek, paradoxikoki, eta horrela mutuek gizarte-kotizazioetako dirua erabiliko lukete kliniketako tratamenduak ordaintzeko, osasun-tratamendu horiek euren ardurapekoak izanik ere.

Funtsean, Estatuak Gizarte Segurantzako eta Osasun Sistema Publikoko dirua eta konpetentziak ematen ditu patroiek ustez langileen eta autonomoen osasuna “babesteko”. Mutuek beti “babestutako langileez” hitz egiten dute baina berez “kontrolatutako langileak” dira.

NEGOZIOAREN ZIFRAK

Mutuek Barne Produktu Gordinaren %1 kudeatzen dute, 10.000 milioi euro inguru. Indar ekonomiko itzela dute eta politikoa ere bai, mutuen zuzendaritza-organoetan zenbait alderdi politikotako politikoeak hartzen baitute parte.

Mutuek printzipio demokratikoak urratzen dituzte eta demokrazioaren eskakizunetara itxita dauden erakundeen adibide argiak dira, izan ere, euren kudeaketan ezin dute parte hartu “babesten” ari omen diren pertsona horiek. Mutuetan 1,4 milioi enpresa daude, eta horietatik %98k besteren kontura lan egiten duten 12,4 milioi langile dituztelarik (afiliatutako pertsonen %96). Hala ere, mutuek Gizarte Segurantzarekin duten “elkarlana” patroien lidergo absolutuaren menpe dago.

Mutuak elkarte antidemokratikoak dira, hierarkia sozial baten arabera antolatutak, eta bertan enpresarioak –eta bereziki enpresario handiak– langileen gaintik daude kokatuta, ez soilik lan-diziplina kontuetan, langile bakoitzaren osasunari dagozkion kontuetan ere bai.

Legez, mutuak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira. Horrek esan nahi du mutuaren soberakinak ez direla “etekin” gisa banatuko elkartutako enpresen artean. Horrek ez du oztopatzen, ordea, mutuen kudeaketak kapitalismoaren logikari segitzea: etekinak maximizatzea minoria pribilejiatu bati mesede egiteko, eta talde handien interesak egotea gainerako interes guztien gainean.

KAPITALAREN TRESNA

Kapitalismoaren logika modu askotara adierazten da mutuetan:

a) kudeaketan inplikaturik dauden eliteen etekin partikularrak – Cajamadrid/Bankiako txartel “ilunen” tankeran- eta BPGren %1en baliokide diren diru-funtsak mugitzeak suposatzen duen botere itzel hori beren mesederako erabiltzea (zerbitzuak kontratatzean eta abar).

b) enpresa-kostuak murriztea, gero eta eskandaluzkoagoa den “justifikatu gabeko presentismoa” sustatuz, lanerako egoki ez dauden pertsonak lan egitera behartuz, alegia.

c) Gizarte Segurantzaren eta osasun sistemaren pribatizaziorantz ematen ari diren urratsak, uneotan izugarriki azeleratua.

KONTROLERAKO TRESNA

Mutuek interes argia dute aldi baterako lan-ezintasunei ezezkoa emateko edo iraupena laburtzeko. Bi helburu betetzen dituzte hori eginez:

Lehena, barne-interesa da, horrela mutuek gastu gutxiago dituzte prestazioetan eta arreta-zerbitzuan. Jasotzen dituzten diru-sarrerak gizarte-kotizazioen araberrakoak dira, ez euren jardueraren araberrakoak, eta ondorioz, zenbat eta diru gutxiago gastatu osasun-arretan edo diru-prestazioetan, soberakin gehiago. Komenigarria da aipatzea prestazioa Gizarte Segurantzaren kargu ordaintzen hasten denean (zuzenean edo mutuaren bitartez) eta ez enpresaren kargu, alta arinegi ematea hainbatetan ez da abantaila enpresentzat, izan ere, berriz ere soldata osoa ordaindu behar diote langileari, nahiz eta oraindik ezin duen bere lana behar bezala bete, eraginkortasunez. Gainera, noski, alta arinegi ematea langilearen lanerako eta osasunerako kaltegarria da eta arriskutsua, baina mutuek ez dituzte “babestutako langileen” interesak defendatzen, ezta enpresa txiki eta ertainen interesak ere, euren kudeatzaileenak eta kapital handiarenak baizik.

Bigarren helburua da, beren terminologiaren arabera, “absentismoa murriztea”, eta ez gara justifikaziorik gabeko absentismoaz ari -hori oso

zigortua dago lan-legediaren aldetik- hutsegite justifikatuz ari gara (horietako asko ere zigortzen dituzte, langilea kaleratuz). Helburua ez da bajen iraupena murriztea osasun publikoaren sistema hobetuz eta itxaron-zerrendak murriztuz, ez; helburua da baja gutxiago edo baja laburragoak ematea, baina osasun-egoera aldatu gabe.

Gehiegikeria hauek geldiaraztea langileon zeregina da, ezin dugu ezikasiarena egin, ezta telebistari begira geratu ere. Praktika hauek normalizatzen ari dira eta okerrera doa. Gaur, mutua honen aurrean, egin dezagun leku hauek gure kritika entzun dezatela.



Lanak hil egiten du ta Mutuak errematatu

